

auzoz auzo • auzoz auzo • auzoz auzo

altza

Santo Tomas Larratxoraino

hirugarren urtez, Larratxoko Josu Artetxe plazan, Santo Tomaseko feria egingo da abenduaren 21ean txorixoa eta ogiarekin batera.

Haseran jolas modura hasi ziren Larratxoko Santo Tomaseko feria antolatzen baina urtez urte gaia seriotasun handiagoz hartu da. Iazkoak arrakasta handia izan zuten, jende ugari inguratu zen eta postuak kalitate handikoak izan ziren.

Aurten jai egun hori larunbata egokituko denez, Altza eta inguruko bizilagunek txistorra eta bertako produktoak dastatu eta jai giro apartaz gozatzeko aukera izango dute.

Gazta, sagardoa, barazki eta baserriko beste zenbait produktu erakusgai jarriko dira Josu Artetxe plazan eta postu guztietako gaiak eros- teko aukera ere izango da.

Txistorra salmentaz arduratzen direnaz gain, sei postu jarriko dira.



Txistorra salduko dutenez gain, sei postu jarriko dira Larratxon.

Txalaka elkarteak eta Casares kultur etxeak jarriko duten postuan adibidez, mondejuak prestatuko dira.

Auzoko produktoak

Aurreko edizioetan

bezalaxe, Santo Tomas egun honetan erakutsi eta salduko diren produktoak Altzako baserrietakoak izango dira, baita plazan egongo den txerria ere.

Txaranga bat arituko da

egun osoz kaleak girotzen eta euskal dantzen erakusketarekin ere egingo da.

Santo Tomas ere iritsi da gurerara!

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

Gazte-Lekuan ere txistorrada galanta prestatuko dute Altzako gazteek. Hauen jaia egun bat aurreratuko da, abenduaren 20ra, ostiralera hain zuzen. Arratsaldeko 18.00etatik aurrera txiste kontaketa eta jokoak izango dira protagonista nagusi Herrera pasealekuko lokal hauetan.

Lamiak ipuin kontalariek euskarazko «Gabonetako ipuiak» kontatuko dizkiete bertara hurbiltzen diren haur guztiei datorren ostiralean, hilak 20, Larratxoko haur liburutegian. Arratsaldeko 18.00etatik aurrera, 6 urtetik 9 urte bitarterako haurrek imajinarioa lantzeko aukera izango dute.

■ Kultura eta aisialdirako, denda kontzeptu berria

■ 800 m²

Musika klasikoan %30 arteko BEHERAPENA

MUSIKA BIDEOAK ALDIZKARIAK ETA LIBURU-SAIL GUZTIZ OSATUA



Fermin Calbeton 21 - DONOSTIA - Tfnoa.: 42.00.80 - Faxe: 42.03.88